



Tolosaldea
garatzen

AURKIBIDEA

SARRERA	3
HELBURUA ETA JUSTIFIKAZIOA	4
PROPOSAMENA	5
AURREKONTUA	10
KRONOGRAMA	16

SARRERA

2020 urtean Tolosaldea Garatzen garapen agentziak energia diagnostikoa egin, energia estrategia aztertu, berregin, eragileekin partekatu eta PIZTU TOLOSALDEA Energia Plana 2021-2024 idatzi berri du.

Piztu Tolosaldea 2021-2024 Energia planaren helburua, Tolosaldeko eskualdean karbono baxuko modelo energetiko batera trantsizioa gauzatzea izango da. Eta horretarako, plan honek, Tolosaldeko eragile ezberdinei energia trantsizioak (eredu aldaketak) suposatzen dizkien erronkei aurre egiten eta sortzen diren aukera berriak baliatzen lagunduko die. Hiru eragile mota izango dira Energia Planaren publiko helburu: udalak, enpresak (autonomo eta ETEak bereziki) eta herritarrak.

2021 urtean Piztu Tolosaldea Energia Plana 2021-2024eko lehentasunezko ekimenak eramango ditugu aurrera; horietako gehienak GFAREN hitzarmen honen baitan eta beste batzuk Tolosaldea Garatzenek lortutako beste diru-funts eta baliabideetan oinarriturik.

HELBURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

Gauzak horrela, Tolosaldeko Energia Plana 2021k duen helburu nagusia Piztu Tolosaldea Energia Plana 2021-2024ren haziak ereitea izango litzateke.

Hurrengo lan-ildoetan oinarritzen da Tolosaldeko Energia Plana:

1. **Energia Plana gauzatzea**
2. **Energia gaien koordinazioa bermatzea**
3. **Udal politika publiko eta energia jasangarritasunaren inguruko ekintzak dinamizazio eta sustapena**
4. **Energia jasangarritasun ekintzen dinamizazio eta sustapena eskualdeko beste eragileekin**
5. **Ehun ekonomikoaren sustapena egitea energia jasangarritasun alorrean**
6. **Informazioa, sentsibilizazioa eta formakuntza sustatzea**

Tolosaldea kanpoaldearekiko %98ko menpekotasun energetikoa du eta guztiok, enpresa, eragile edo norbanako, gure egunerokoan energiari lotutako erabakiak hartzen ditugu, erosterakoan, mugitzerakoan, lana egiterakoan, etab. Hortik abiatuta, Tolosaldea Garatzenen energia estrategia zabaltzeko eskualdeko eragile desberdinekin koordinazioa ezinbestekoa da, guztion esku dagoen estrategia dela ohartarazi eta gizarteratzeko.

Udal mailan energia berriztagarrietan azterketak eta inbertsioak sustatuko dira Tolosaldea Garatzenetik, dirulaguntzak eskatzeko garaian dinamizazio lanak eginez eta eskualdeko udaletan energia estrategia udal agendan sartu dadin lanketa egiten jarraituko dugu, politika fiskalaren bitartez.

Eta hortaz gain, eskualde ikuspegia duten ekimenak garatuko dira aurren: elektromugikortasuna, eskualdeko energia bulego birtuala, , etab.

PROPOSAMENA

2021eko Ekintza Plana, beraz, honako lan-ildoetan oinarritzen da eta hurrengo ekimenetan gauzatuko da:

1. ENERGIA PLANA

1.1. Piztu Tolosaldea 2021-2024 Energia Planaren garapena

Energia Plana 2021-2024 oinarria osaturik, eragile ezberdinen ekarpenak jaso eta onarpen ofiziala egiteko prozesua aurrera eramango da 2021ean.

1.2. Urteko ekintza plana eta ebaluaketa

Energia Plana 2021-2024etik eratorritako urteko ekintza plana garatzeko eman beharreko asistentzia teknikoa, eta aurrera eramandako ekintzen jarraipen eta ebaluaketa burutuko da.

2. KOORDINAZIOA

Energia teknikariaren lan-ildo nagusietako bat da erakunde desberdinekin koordinazioa da.

2.1. Tolosaldeko Energia Mahaia

4/2019 Legeak eskatzen duen bezala, eskualdeko energia mahaia dinamizazioa Tolosaldea Garatzen garapen agentziaren esku dago. Bertan, energia mahaia deitu, dinamizatu eta bertan hartzen diren erabakiak aurrera eramango ditu TGek. Energia mahaia urtean gutxienez 4 aldiz deituko da.

2.2. Gipuzkoako Energia Jasangarrirako Lurralde Mahaia

Lurralde mailako energia mahaian ordezkari darama Tolosaldea Garatzenek. Kontestu honetan, beste eskualdeetako garapen agentziekin hartu-eman burutuko da.

2.3. GFA koordinazioa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren energia estrategi berrian azalduko diren helburu eta ekintzekin lerrokatzeko beharrezko diren koordinazio ekintzak aurrera eramatea. Besteak beste, hitzarmenaren inguruko koordinazioa bermatuko da.

2.4. Beste erakundeekin koordinazioa

Eskualdeko energia estratemia garatzeko, energia gaiekin lotura duten erakundeekin harremanetan egotea. Honek, energia gaien eguneratzea (dirulaguntzak, funtsak, sentsibilizazio kanpainak, eta abar) bermatuko du, beste eskualdeko eragileak informatuz.

2.5. Eskualdeko eragileekin koordinazioa

Eragile publiko eta pribatuekin energia gaietan ekimenak detektatzea, dinamizatzea eta sustatzea. Proiektu europarretan parte hartzea erreztea edota komunitate energetikoen sorrerako koordinazioan parte hartzea dira ekintza honen adibide.

2.6. Energia, jasangarritasun eta klima alorreko ekintzekin koordinazioa.

2021 urtean zeharka energiarekin zerikusia duten beste gaiak eta ekintzak aztertuko eta uztartuko dira (agenda 2030 eta ekonomia zirkularraren estretegia garapena, adibidez).

3. UDAL POLITIKAK ETA EKINTZAK

3.1. Energia berriztagarri eta autohornikuntza proiektuetan laguntza

Tolosaldea Garatzeneko energia teknikariak udalen energia proiektuetan aholkularitza emango du, proiektuak zehazten laguntzen, lizitazioak egiten, balorazio teknikoak egiten, etab. (Otsailerako, 6 proiektu berbegiratu eta aholkularitza eskeini da). Udalek interes handia agertu dutenez, autohornikuntzaren inguruan dauden aukeren azterketa egingo da eskualdeko errealitateari begira. Udalei zuzenduriko jardunaldi bat antolatuko dugu Tolosaldea Garatzenetik.

3.3. Elektromugikortasuna udaletan

Udalekin egindako galdeketetan elektromugikortasunak gero eta interes handiagoa piztu duela ikusi da. Honetan laguntzeko, udaletan birkarga elektriko instalazioak egiterako garaian aholkularitza emango da. Horretaz gain eskualdeko mugikortasun beharrak asetzeko alternatiba elektrikoak aztertuko dira bai alor publikoan, baita pribatuan ere (ikus 4.7. ekintza).

3.4. Udal instalakuntzen kudeaketa integratua

Pasa den urtean hasitako prozesua da energia kudeaketan inguruko udalen jabetze prozesua eta bigarren fase honetan 2019 eta 2020ko datuen sarreran laguntza teknikoa eskaini eta kudeaketa programaren kontratazio bateratua sustatuko dugu (2020an Tolosa eta Ibarako udalei lagundu zitzaizen kontratazio prozesu honetan).

3.6. 4/2019 Legearen betetzea

Legea betetzen den jarraipena egingo du energia teknikariak, horretarako beharrezkoak diren ekintzen identifikazioan lagunduz eta bete-beharreko ekintzen kontratazioa erraztuz.

3.7. Udaletako zerga politikak

Urtero udalek hartutako zerga erabakien jarraipena egiteaz gain, 2021an zerga politika eredugarrien errekopilazioa egin eta zerga eredu proposamena egingo zaie udalei.

3. BESTE ERAGILEEKIN EKINTZAK

4.1. Pobrezia energetikoaren aurkako ekintzak

Pasa den urtean gizarte zerbitzuekin hasitako elkarrizketari jarraitu nahi diogu. Horretarako, eskualdeko egoeraren azterketa sakonagoa egingo da eta batez ere, gaia lantzeko eskema praktikoa bat martxan jarri nahi da. Plangintza hori aurrera eramateko, pobrezia energetikoan aditua den enpresa baten azpikontratazioa aurreikusten da.

4.6. Komunitate energetikoen sorrera bultzatu

Udalen aldetik autohormikuntza komunitario eta energia sorkutzan zentratutako komunitate energetikoen inguruan interesa azaldu dute eta hausnarketa sakonago bat egitea dute xede. Horretarako, modelo ezberdinak eskualdean eduki dezaketen inpaktua aztertu nahi dugu, eragile ezberdinek eduki dezaketen partaidetza ulertu eta udalek eduki beharko luketen lidergotzari buruzko hausnarketa egin. Guzti hau, Tolosaldeko herri ezberdinek duten errealitate berezietara egokitu beharko da.

4.7. Elektromugikortasuna eskualdean

Tolosaldeako udalek proposaturik, eskualdeko mugikortasun partekatuen eta elektromugikortasunaren inguruan azterketa egitea adostu da. Horretarako gai hauen inguruko azterketa azpikontratatu da TGen diru funtsak erabilita.

5. EHUN EKONOMIKOAREN SUSTAPENA

5.1. Tolosaldean energia jasagarritasun eta berrikuntza enpresen identifikazioa.

Gipuzkoako Foru Alndundiaren laguntzari esker bultzaturiko “Negozioaren diagnostikoa eta hausnarketa” proiektua eskualdeko enpresetan azterketa egiten ari gara. Aukera hori baliatuz, energia gaien inguruko galdera zehatz batzuk txertatu dira galdetegia, energiak eskualdeko enpresetan duen errealitatearen lehen hurbilketa bat edukitzeko helburuarekin.

6. INFORMAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA ETA FORMAKUNTZA

6.1. Energia Bulego Birtuala sortu

Energia gaien inguruko informazioa eskualdeko eragile ezberdinegana hurbiltzea funtsezko funtzioa da TGentzat. Aldiz, hau lortzea ez da erraza. Honexegatik, eskualdeko herri ezberdinetako herritar eta eragileengara era eraginkorrean iristeko eta eragile hauek beraien ardura eta beharrak adierazteko atari moduan, bulego birtual kontzeptua garatu nahi dugu. Azpikontratazio bidez, bi lan lerro nagusi landuko dira:

- Alde batetik, herritarrengana iristeko estruktura eta erreminta digitalen diseinua adostea (berritzea zaila den web estatikoetatik aldenduz).
- Bestetik, herritarren eta eragileen beharretara egokituko den edukia inguruan hausnarketa eta analisia garatzea (dirulaguntzen informazio eguneratua, energia aurrezpena sustatzeko aukerak, eskualdeko eragile eta

enpresei buruzko informazioa, eta abar).

TGek berriki berrituriko weba eta dagoeneko dugun www.etorkizunekoenergia.eus weba abiapuntu bezala hartuko dira.

6.2. Udal teknikarien formakuntzaren jarraipena egin.

Udal teknikariek energia gaietan dituzten formakuntza beharrak identifikatuko dira. Behar hauen inguruan, formakuntza gaietan eskumenak dituzten eragileei informatuko zaie (Gipuzkoako Foru Aldundia adibidez) formakuntza hori planifikatzeko eta sustatzeko.

AURREKONTUA

LAN LERROA	JARDUERA	AURREKONTUA (BEZ barne)
1. ENERGIA PLANA	1.1. Piztu Tolosaldea 2021-2024 Energia planaren garapena.	0,00 €
	1.2. Urteko (2021) ekintza plana eta ebaluaketa	*20.328,00 €
2. KOORDINAZIOA	2.1. Udalen arteko koordinazioa: Tolosaldeko Energia Mahaia eta udalekin bilerak	Ikus 1.2 ekintza
	2.2. Gipuzkoako beste eskualdeetako garapen agentziekin koordinatu:	
	2.3. GFArekin energiaren inguruko gaietan koordinazio bilerak burutu.	
	2.4. Beste erakunde garrantzitsuenekin koordinazio eta eguneratze burutu:	
	2.5. Energia jasangarritasuna lantzen duten eskualdeko eragile publiko zein pribatuen arteko koordinazioa erraztu.	
	2.6. Energia, jasangarritasun eta klima alorreko ekintzekin koordinazioa.	
3. UDAL POLITIKAK ETA EKINTZAK	3.1. Udaletan energia berriztagarri eta auto hornikuntza proiektuak gauzatzen lagundu.	Ikus 1.2 ekintza Ikus 4.6. ekintza
	3.3. Elektromugikortasuna udaletan	0,00 €
	3.4. Udal instalakuntzen Kudeaketa integratua	1.000,00 €
	3.6. 4/2019 legea betetzen lagundu	Ikus 1.2 ekintza
	3.7. Udaletako zerga politikak	3.000,00 €
4. BESTE ERAGILEEKIN EKINTZAK	4.1. Pobrezia energetikoaren aurkako ekintzak	7.200,00 €
	4.6. Komunitate energetiko en sorrera bultzatu.	7.100,00 €
	4.7. Elektro mugikortasuna eskualdean	20.000,00 €
5. EHUN EKONOMIKOAREN SUSTAPENA	5.1. Tolosaldean energia jasangarritasun eta berrikuntza enpresak identifikatu eta ezagutzera eman	0,00 €
6. INFORMAZIOA, SENTSIBILIZAZIOA, FORMAKUNTZA	6.1. Energia Bulego Birtuala sortu	11.300,00 €
	6.4. Udal teknikarien formakuntza ren jarraipena egin	0,00 €
Guztira		69.928,00 €
TG FUNTSA		20.000,00 €
GFA HITZARMENA		49.928,00 €

*20328 €: Planean agertzen diren ekintzak aurrera eramateko PERTSONALA.

KRONOGRAMA

LAN ILDO ETA JARDUERAK	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
1. ENERGIA PLANA												
1.1. Piztu Tolosaldea 2021-2024 Energia planaren garapena.												
1.2. Urteko (2021) ekintza plana eta ebaluaketa												
2. KOORDINAZIOA												
2.1. Udalen arteko koordinazioa: Tolosaldeko Energia Mahaiak eta udalekin bilerak												
2.2. Beste eskualdeetako garapen agentziekin koordinatu												
2.3. GFArekin koordinazio bilerak burutu.												
2.4. Beste erakunde garrantzitsuenekin koordinazioa												
2.5. Energia jasangarritasuna lantzen duten eskualdeko eragile publiko zein pribatuen arteko koordinazioa erraztu.												
UDAL POLITIKA ETA EKINTZAK												
3.1. Udaletan energia berriztagarri eta auto hornikuntza proiektuak gauzatzen lagundu.												
3.3. Elektromugikortasuna udaletan												
3.4. Udal instalakuntzen kudeaketa integratua												
3.6. 4/2019 legea betetzen lagundu												
3.7. Udaletako zerga politikak												
BESTE ERAGILEEKIN EKINTZAK												
4.1. Pobrezia energetikoaren aurkako ekintzak												
4.6. Komunitate energetikoen sorrera bultzatu.												
4.7. Elektro mugikortasuna eskualdean												
EHUN EKONOMIKOAREN SUSTAPENA												
5.1. Tolosaldean energia jasangarritasun eta berrikuntza enpresak identifikatu eta ezagutzera eman												
INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA FORMAKUNTZA												

6.1. Energia Bulego Birtuala sortu													
6.4. Udal teknikarien formakuntzaren jarraipena egin													